

Komunitateak duen garrantzia agerian geratu da aurtengo Santa Krutz jaietan

Jai Batzordeak, elkarte eta eragile ezberdinek konfinamenduan ospatzeko egitaraua prestatu zuten. Herritarren erantzuna bikaina izan da. 2/7

Tokiko merkataritza = Herri bizia

Baloratu herriko denda txikiak eskaintzen diguten

konfiantza

kalitatea

eta tratu pertsonala

GUZION
Urnieta

Urnieta
udala

Santa Krutz jaietako miraria

Andoaindarrak eta festazaleak ez zeuden hain erraz etsitzeko prest, eta Jai Batzordearen bultzarekin Santa Krutz jaiak ospatu direla esan daiteke. Parte hartze handia izan da leiho eta balkoietan, eta baita Internet bidezko emankizunetan ere

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoaindarrak urte osoa egoten dira Santakrutzak noiz iritsiko zain. Hilabete lehenago inork ez zuen usteko festak beste modu batera antolatu beharko zirela pandemia baten ondorioz.

Santakrutzak bezalako jaiak antolatzeke elkarlana eta antolakuntza handia eskatzen du herritarren partetik; Jai Batzordeak eta Kuadrilla Eguneke antolakuntzak bereziki lan ona egin dute ez-ohiko festa hauek aurrera ateratzeko eta egoera kaxkarrari alde ona bilatzeko. Denbora errekor batean, jai telematiko modukoa sortu zuten. Internet bidez eta sare sozialen bidez ospatzeko lau eguneke egitaraua egokitu zuen Jai Batzordeak.

Esanak esan, jaiak giro bikainen antolatzea, eta parte hartzea handia izan da. Herritarrek eta auzokideak egitarauak eskaintzen zituen ekintzetan murgildu dira lau egunetan. Berrir ere nabarmendu beharra dago ez-ohiko Santakrutzak aurrera eramateko elkarlana, parte hartzea eta ondo pasatzeko nahia ezinbestekoa izan dela.


Egitaraua hasieratik bukaera herritarren parte hartzearekin pentsatuta zegoen, eta hori ahalbidetzeko tresnatzat erabili dira sare sozialak. Esaterako, balkoi eta leihoen apainketa lehiaketak, auzo bazkariak eta kuadrillen eguna beste askoren artean, arrakasta izan zuten. Batetik, Internet bitartez jendeak egiten zuena ikusteko aukera zegoelako; bes-

tetik, herritarrek etxean egonda parte hartzea sustatzea errazagoa zelako. Jai batzordeak hori bazekien eta oso ondo moldatu du festa egoerara.

Zuzenekoek edukitako arrakasta nabarmendu beharra dago; besteak beste, txokolatea egiteko tailerra, bertso saioa, DJak eta kontzertua. Punttukak antolatutako bertso saioak 150 ikusletik gora eduki zituen. Kontzertuek ere 100 ikusletik gora. Guztiak etxean sartuta, baina modu batera Santakrutzak ospatzen. Jai Batzordeak eta Kuadrilla Eguna antolakuntza taldeak Santa Krutz jaiak egitea posible bilakatu dute, hori bai, saiakeraren eta elkarlanaren bitartez. Beste behin ere lortu dute egoera txarri aurpegi ona erakustea.



Etxe bakoitzean ospakizuna. Kanpotik ikusita, irudia ikusgarria zen. AIURRI



NIRE USTEZ

ION BELOKI ANDOAIN

Jai Batzordeari

Nork esango zigun 2020ko urtarrilean, jai batzordea bilerak egiten hasi zenean, aurtengo Santakrutzak etxean ospatuko genituela. Bileraren batean hori aipatu ezkerotz hartuko zuketean esan zuen hura.

Orain dela urte batzuk Santakrutzetako batzorde kide izan nintzen eta SEGAKo kide moduan badakit ederki jai herrikoi batzuk antolatzeak zer lan duen atzetik. Hilabete batzuk lehenago bilerak egiten hasi behar zara eta guztia kontrolpean izan behar duzu ondoren dena behar bezala atera dadin.

Esan gabe doa, jaien atzean bolondres talde bat dagoela guztia antolatzen eta bere denbora libretik denbora asko jaiari eskaintzen, besteen gozamenerako. Egoera horren lekuko argiak izan gara aurten.

Nire buruari halaxe esaten nion: "Aurten ez diagu jaiiez gozatuko", baina ez... Jai batzordeak ahalegin izugarria egin du egitarau izugarri batez etxetik goza dezagun eta hori bene-benetan eskertu beharra dago. Ekitaldi bakoitza mimo handiz prestatu dute eta kartelak ere ez dira nolanahikoak izan. Etxean ere gauza asko egin daitezkeela

ikasi dugun honetan, jaiak ere birtualki ospatu ditugu eta esperientzia berri bat izan da denontzat.

Nostalgia puntu batekin bizitu ditugun arren, ekintza askotaz disfrutatzeko aukera eman diguzue antolatzen aritu zaretenok eta gainera festaren partaide (eta batzutan antolatzaile) sentiarazi gaituzue.

Horregatik guztiagatik txalo zaparrada amaigabe bat eskeini nahi dizuegu batzordekide guztioi andoaindarraren izenean! Bejondeizuela! Datorren urteari begira jarrita gaude jada! Gora Santakrutzak!!!



Aingurasutegiko bizilagunen parte hartzea oso aktiboa izan da. Ostegunean hasita, eta igandera bitarte. AIURRI



Gauean ohikoa den "Furgofarra", leihora egokitutako bertsioan. AIURRI



Irudi ez ohikoak eta ikusgarriak utzi zituen igandeak. AIURRI



Santa Krutz eguna, data seinalatua herri osoan. AIURRI



Zumeatarrako danbor jotzaileek ez dute hain erraz etsi. AIURRI



Zumea plazako leihoetara begira jarrita, dekorazio harrigarriak aurki zitezkeen. AIURRI



Bluxak balkoian eskegi, aginte-makila hartu eta Santa Krutz martxa eskaintzeari ekin zioten Belabi kaleko bizilagunek. AIURRI



Maiatzaren 3ko irudietakoa izan zen. Eguerdian Amutxategik txistua jo zuen Kale Nagusiko balkoitik. Parean zuen Ibargurenek danborra jo zuen. Bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. **AIURRI**



Maria Dolores Sanzberro, balkoiko ikuspegitik. **AIURRI**



Olasagastitarrak ospakizun betean. **AIURRI**



Mila Garralda ospakizuna jarraitzen. **AIURRI**



Etxeberriatarrak eta parean zituzten Juan Bautista Erroko bizilagunak jaiak gozatzen ahalegindu ziren. **AIURRI**



Terraza, balkoi, leiho eta atiko festa izan da aurreko egunetan bizi izan dena. **AIURRI**



POSTONTZIA

SANTA KRUTZ JAI BATZORDEA ANDOAIN

Andoaingo herriari

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak denoi. Ekitaldi, zuzeneko, bideo, balkoi eta leihoak apaindu, sare sozialetan jarraipena egin... aktiboki edo pasiboki festa hauetan parte hartu duzuen herriar guztioi, gure eskerrik handienak luzatu nahi dizkizuegu. Egoera zailenean ere, Andoain bizirik dagoen herria dela erakutsi dugu egun hauetan denon artean.

Esker bereziak ere Aiurriko lagunei. Lagun diogu, ez langile, egin duten jarraipena eta esfortzua ordutegi eta soldata batetik haratago doan lana izan delako, festa hauetako sentipena argazki, artikulua eta sareetan isladatuz, Andoaindar guztien etxeetara iritsi direlako.

Animorik handienak gure aldetik berriro ere herriko komertzio, taberna zein eragile txiki guztiei. Andoaindarrok festetan erakutsi badugu herria bizirik mantentzen dugula, zuek egunerokotasunean mantentzen baituzue herria bizirik. Etorriko dira garai hobeak eta herritarrok bertan egongo gara zuei babesa emateko.

Festen balorazioa egiteko daukagun arren, Jai Batzordeko kideak babestuak sentitu gara momentu guztietan herritarrongatik. Egin nahi genituen sorpresa, kontzertu, zein ekitaldi kultural guztiak baimen kontuengatik aurrera eraman ezin izan ditugun arren, egitarau potolo bat eskaini dugulakoan gaude. Eta lasai,

baldintza jakin batzuegatik aurreten egitea utzi ez dizkiguten ekitntza batzuk, datorren urterako jasoko baititugu.

Amaitzeko, aurreratu genizuen ez ginela festarik gabe geratuko eta aurtengo Santa Krutz jaietan andoaindarrok erakutsi dugu festa ez direla konfinamendu, aurrekontu edo baimen kontua. Festak jarrera eta ilusio kontua direla. Herritik, herriarentzat. Eta Santa Krutz jaietako buruz ari garenean, festa zein ilusioa zakuka kontatu ditugu herriko balkoi, leiho eta familia guztietan.

Datorren urtean ikusiko dugu elkar berriro,
Gora Santakrutzak!

Azken traka Santa Krutz elizaren parean

Iluntzeko 20:00tan txaloa joz aritu eta gero, maiatzaren 3an Garbiñe Amutxategi eta Bixente Zabala herrikideak Santa Krutz elizaren parean elkartu ziren. Aiurri.eus webgunean eskegita dago bideoa, eta bistaratze asko izan ditu. Bixente Zabala ageri da bideoaren hasieran, Zumea kalean barrena txistua joz doala. Elizara hurbiltzen ari dela, zain du Garbiñe Amotxategi. Biak elkartu eta berehala "Santa Krutz martxa" eskaintzeari ekin zioten. Jaiari azken traka modukoa izan zen. Bertatik igarotzen ari ziren oinezkoek txalo egin zuten, saiotxo amaitzean.



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Santakrutzak internet bidezko emankizun ezberdinetan

Ez-ohiko Santakrutzak izan dira aurtengoak, Osasun Alerta egoera dela eta. Parte hartzea handia izan da, eta ez edonolokoa; sare sozialen bitartez burutu dira saio eta ekimen asko. Festa eredu berria da Santakrutzetan sortu dena, online-jaia bezala definitu daitekeena. Lehen egunean eduki gehienak sare sozialen bitartez zabaldu ziren (Twitter, Facebook eta Instagram); horietatik batzuk

aurretiaz programatu ziren, besteak, berriz, zuzenekoak izan ziren. Zuzeneko emanaldiak arrakasta eduki zuten lehen egunetik; esaterako, Ander Guerreroren txokolata egiteko tailerra edo gauean eman zituzten kontzertuak. Nork pentsatuko zuen hilabete batzuk atzera gautxorien argazkia egin beharrean, bilkura streaming bitartez egingo zela.

Arestian arrakastaz hitz egin dugu, bada, aipatzekoa da Youtube bitartez egin zen zuzeneko bertso saioa; 150 ikusletik gora bildu ziren Punttuka Eskolako bertsolariak entzuteko eta ondo pasatzeko. Eta zer esan dezakegu DJ Bull-i buruz. Azken urteetan, Kuadrillen Eguneko lagun bilakatu da, eta ala erakutsi zuen Twitch plataformaren bitartez eskainitako zuzenekoan.





Jaien hasierako pregoia. AIURRI

Elkarlanaren fruitu izan da, festazaleak jairik gabe ez uzteko helburua lehenetsita.



Berrozpe etxearen ataria. AIURRI

Santakrutzak Kaletxikiraino iritsi zirenekoa



Umorez beteriko bertso saioa, Internet bidez eskaini zutena

Punttuka bertso eskolako kideek Internet bidezko bertso saioa eskaini zuten, maiatzaren lehenean

Xabier Lasa ANDOAIN

Sei lagun aritu ziren kantuan, guztiak ere andoaindarrak: Beñat Beloki, Ion Beloki, Xabier Arantzetza Toxak, Aritz Eskudero, Jon Eskudero eta Unai Ormaetxea. Arkaitz Lasarte izan zuten gai jartzailea. Txukun jardun zuen seikoteak, eta Santakrutzak eta osasun krisialdia gaitzat harturik, euren bertsoan umorea nagusitu zen. Saio osotik bertsoaldi bat hautatu dugu, ofizioka Beñat Belokik eta Xabier Arantzetza osatu zutena.

Gaia: “Biak txosnako txanda egitera sartu zarete. Zuk, Beñat, betiko musika jarri nahi duzu, euskal rock erradikala deitutakoa. Toxakek, ordea, nahiago reggae-toia-eta, festa-giroa gehiago zabaltzen duelakoan”.

Beñat Beloki:

Santakrutzen jaia
etorri da bela.
Txosnaren kanpoan do
giroa itzela.
Musika zarrak jarritz
Toxak haiz ergela.
Sutagar jarriko det
behar dan bezela (bis)

Xabier Arantzetza Toxak:

Euskadin zaila dago
ligatze asuntia,
jendeak badauka ta
nahikoa gogoa.
Beñat azaldu eta
luzatu lepoa.

*Zu lasai, nik hartu
det mikrofonoa (bis)*

Beñat Beloki:

*Mikrofonoa hartu
hi hasi kantatzen,
Toxak, hik bertakoa
ez dek baloratzen.
Hiri attu ta orain
ari nauk nazkatzen,
hemengo kultura hik
ez dek ta maitatzen (bis)*

Xabier Arantzetza Toxak:

*Beñat, ni gaztetan bai
nintzan ba makarra,
eta musika hori
jarri barra-barra.
Orain tokatzen zaigu
in dezagun parra.
Nik ikusten haut hi
zahartu samarra (bis)*

Beñat Beloki:

*Txosna barruak orain
dirudi España,
ta ni haserretutzen
puztu zait, bai, zaiña.
Toxak ixildu hadi
ta itxi ezaña.
Kañerora joanda
atera idak kaña (bis)*

Xabier Arantzetza Toxak:

*Zaharrari erakusten
hasi da gaztia.
Hik bizi behar dek ba
oraindik bizia.
Eta esango diat
nik orain egia:
nik ere maite diat
gure Euskal Herria.*




AIURRI

Balkoi eta leiho ederrak, jaietan

Egoera eta espazio berrira egokitu dira jaiak, eta festazale batzuk azkar batean erreakzionatu zuten. Maila handiko dekorazio eta girotze lanak ikusi ziren Santa Krutz jaietako egunetan. Kapelak, zapiak, edalontziak, bluxak... Argazkikoa bikaina da.

Santakrutzak etxean

Jaiak etxetik gozatu behar izan dira, eta askok Internet bidez euren esperientzia partekatu dute. #STKEtxean traola erabiliz, edota Aiurriko telefono zenbakira argazkia nahiz bideoa bidaliz, festarekiko jarrera aktiboa erakutsi dute



Bideo-sorta, haurrak gogoan




Konfinamendu garaian, Ainara Abregok eta bere etxekoek bideo ikusgarriak partekatu dituzte. Jaiei begira, Santa Krutz jaien esentzia bildu zuen bideo batean. Haurrei begirako eduki aberasgarriak izan dira. Jaietan zehar herritarrek bideo gehiago bildu zituzten, haietako asko jaiaren aldeko mezuak zabalduz. Ikusgai daude Aiurri.eus webgunean.



Jaien hasieratik, gogotsu

Ostegun arratsaldean Gurutze Gorriaren eta Burdina elkartearen ibilgailu bana jaiaren hasiera iragartzen aritu zen. Musika hotsak entzun ahala, bizilagunak leihoetara eta balkoietara irten ziren. Herriar askok bat egin du festarekin



Negozioen berrabiaratzea, ezjakintasun handiarekin

Estetika, ileapaindegia eta bestelako dendak negozioen atak zabaltzen hasi dira, pixkanaka

Erredakzioa ANDOAIN

Pixkanaka-pixkanaka bada ere, tokiko merkataritza berrabiarazteko urratsak ematen ari dira. Badira hainbat merkatarialde aurretiko zita eskaintzen hasi direnak. Askoren artean Adats ileapaindegia, Amantegi, Gamer, Gloss, Gonzalez, Larrutxoko, Kein, Ormendi, Ormendi, Axun, Durazno, Xare edota Txoko 100.

Aiurri astekariak merkatarien artean astelehen goizean egin zuen azterlanaren arabera, ezjakintasun handia zeogen hartu behar dituzten prebentzio-neurrien aurrean eta baita irekitzeko baldintzen inguruan.

Ile-apaintzaileak eta estetika lokalak negozioari berrekiteko bidean dira, beti ere prebentzio eta segurtasun neurri zorrotzak hartuta.

Ostalaritzari dagokionez, iragarri dituzten neurriekin zailantza eta kezka handia dago sektorean.

ESTETIKA LOKALAK IREKITZEKO BIDEAN DIRA, BETI ERE PREBENTZIO NEURRIAK HARTUTA

"Itxura fisikoa zaintzea premiazkoa da"

Ileapaindegietako profesionalek lan jardunari berrekin diote, joan den astelehenaz geroztik. Lorena Tejado izan da horietako bat, Andoaingo "Herriko etxeetan" daukan ileapaindegian

Xabier Lasa ANDOAIN

Negozioaren atea ireki zuenerako, hurrengo hamabost egunetako hitzordu guztiak jada hartuta zituen: "Maiatzaren 4an ileapaindegia irekitzeko aukera iragarri zuten bezain pronto, bezeroak deika eduki ditut atzetik. Lehendik ere, konfinamenduko asteetan, jendearekin kalean topo egiten nuenean eskatzen zidaten berarentzat hitzordua hartzeko, krisialdia gainditzeko zen egunerako".

Premiazko sektore ekonomikotzat jo ez arren, ileapaindegien zerbitzua jende askorentzat behar-beharrezkoa dela argi geratu dela uste du Tejadok: "BEZa %21 ordaintzen dugu eta ez gaituzte luxuzko jardueratzat hartzen, baina ez dakizu jendeak zenbat bota duen faltan ileapaintzaileen eskua, burua txukuntzeko!". Lorena Tejado Clemen Garcia bezeroarekin ari da lanean, adierazpenak egiten ari den bitartean. Biek ere, erdi txantxetan diote, pandemia berriren bat heltzen zaigunerako ileapaindegiena derrigorrezkotzat hartzea izango dela jaso dugun eskarmentuetako bat.

Normalki, jendeak hilabete edo hilabete eta erdiko tartean ileapaindegira joateko ohitura duela zehaztu du Tejadok. "Ema-



Lorena Tejado eta Clemen Garcia bezeroa. AIURRI

"APAIN AGERTZEKO JOERA BERDINTZEN ARI DA GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN ARTEAN"

kumeen kasuan, ile-zuria gehitxo daukatenean, zainak bistan geratzeko arriskua daukate asteak aurrera joan ahala, eta horrexegatik, zain horiek tin-tearekin estaltzea komeni zaie". Aurreiritziak ere aldatu behar-

ko genituzkeela gehitu Lorenak. "Esan ohi da emakumeak garaia pertxentak, apain-apain ibiltzea gogoko dugula guk. Baina gizonezkoekiko berdintzen ari da joera hori. Egun, gizonezkoak nire bezero guztien %40a dira, itxura gero eta gehiago zaintzen dute. Belaunaldi berriek, 15-25 urte bitartekoek, ilea txukun moztuta eraman nahi izaten dute. Eta horiek ere tarteka hurbiltzen dira hona".

Itxialdiko boladan pertsonen alderdi psikologia zaintzeko

orduan ileak daukan garrantzia geratu dela agerian uste du Tejadok: "Premiazkoa da itxura fisikoa zaintzea, geure buruarekin gustura sentitzea ispilu batean aurrean jartzen garenean. Ile orrazkera zatar ez eramatea, esate batera. Bezero batek aitortu zidanez, lanera egunero joan beharrak, lotsa galanta pasarazi dio. Etxean ispilu aurrean ahal zuen moduan moldatuta irten da, hala moduz irten ere. Antzera jende asko ibili da konfinamenduko aurreko asteetan, bere buruarekin kalera atera orduko sufrituz".

Prebentzio neurriak, zorrotz

Lorenak nahiko argi dauzka ileapaindegian zeintzuk diren hartu beharreko segurtasun neurriak. "Enbarazua eragiten duten neurriak dira, baina derrigorrezkoak, guztion osasunaren mesederako. Gainera, behin horrela hasiz gero ohitura hartzen da eta kasik mekanikoki egiten dira gauzak.

Hasteko, bezeroak berarekin ekarri dituen gauza guztiak zabor poltsa batean sartzen dira, eta gero irteeran itzuli egiten zaio dena. Poltsa hori zakarretara doa. Desinfekzioarako alkohola ere etengabe erabiltzen ari gara".

Bezeroek zein ile-apaintzaileak maskara jantzita eduki behar dute, beti. "Eta lanean ohikoak ditugun eskuzapiei dagokionez, plastikozko mantal eta gainjantziak ari naiz erabiltzen, horiek ere behin erabili eta zakarretara botatzeko moduan. Eskerrak konfinamendua hasi eta berehala material hori internet bidez erosi ahal izan nuen! Orain eskatzen hasiz gero, auskalo noizko eskuratu ahal izango nituzkeen".



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiñena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



Idiazabal kalea martxoaren 24an ateratako argazkian. AIURRI

Bertako merkataritza sustatzeko kanpaina abiarazi dute Urnietan

"Tokiko merkataritza = Herri bizia" izenburupean, kanpaina abiarazi du Urnietako Udalak

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak komunikazio kanpaina bat zabaldu du herriko saltoki txikiak, ostalaritza eta zerbitzuak balioa jartzeko. Bizi dugun egoera konplexua gainditzeko laguntzeko pizgarri izan nahi du, bide batez.

Hasteko eta behin, Koronabirusak eragindako osasun krisiaren aurrean tokiko merkatariek erakutsitako profesionaltasuna eta inplikazioa nabarmendu nahi izan du Udalak.

Udalak bideo baten bidez udalerriko saltokietako arduradu-

nei protagonismo berezia eman zien: "Profesional horiek guztiek behar-beharrezko lana egiten dute. Kanpainak eskertu egiten du lan hori, eta dei egiten die kontsumitzaileei salbuespen-egoera hau amaitutakoan berriz ere joan daitezela kaleen ardatz diren hurbileko saltokietara, frogatuta geratu baita, orain inoiz baino gehiago, oinarrikoak direla Urnietaren bizirako".

Webgunean merkataritzari bideratutako atal berezi bat sortuko dutela iragarri dute.

Azterlana merkataritza sektorean



"Koronabirusak eragindako osasun-krisia dela eta, herriko saltoki txikiak, ostalaritzak eta zerbitzuek murrizketa handiak jasan behar izan dituzte, eta beste askok berriz, ateak itxi behar izan dituzte. Bada, horiek guztiak zein egoeratan aurkitzen diren ezagutu nahi du Urnietako Udalak diagnostiko zehatz bat egiteko, dituzten beharrak ezagutzeko, eta ondoren, erantzun egoki bat eman ahal izateko". Urnieta.eus webgunean eskegita dagoen inkesta betetzea eskatu du Urnietako Udalak.

Ostalaritzako hainbat negozio ez dira egun hauetan irekiko

Jatetxeko sukaldean prestatu eta norberaren etxean jateko zerbitzua eskaintzen hasi da Buruntza jatetxea

Erredakzioa ANDOAIN

Negozioa itxita mantendu eta aurrerago zabaltzea, tabernari askoren pentsamenduan dagoen erabakia da. Egun zailak dira ostalarientzat.

Urnietan, hala ere, Idiazabal kaleko Egur tabernak astelehenan irekiko ditu. Oianume jatetxeko eta Guriako atear itxita egongo dira, beste hama-bost egunez behintzat bai.

Andoaingo Txitibar edota Hiru jatetxeak ere itxita egongo dira, hurrengo egunetan.

Kaletxikiko Buruntza jatetxeak sukalde zerbitzua irekiko duela iragarri zuen astearen hasieran. Ostiralean hasita ogitartekoak, pizza edota hanburgesak eskatzeko aukera egongo da. Eskarretarako telefonoak hauek dira: 688 86 53 85 / 943 30 38 33. Eskatera egin eta janaria prest dagoenean bezeroak bila pasa behar du.

Gure ikasleen ahotan

"Bi seihileko proiektu interesgarri egin ditugu: banbuzko bizikleta eta kartoizko nukleoa duen surf taula"

Ander Zubeltzu (22 urte, Andoaingo) Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritzako 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaletasunik?

Unibertsitatean iritsi aurretik Andoaingo Aita Larramendi ikastolan burutu nituen ikasketak. Nire zaletasunenak musika, lagunekin elkartzea eta mendi irteerak dira.

Zergatik aukeratu zenuen Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritzako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik ikerkuntza eta teknologia arloak gustuko izanda, batxiler zientifikoa bukatu ondoren ingeniaritza bat garatzeko ideia nahiko argi nuen. Hartara, Mondragon Unibertsitateko Orona Ideo campusa bisitatu ostean, bertan eskaintzen diren gradu zein instalazioak erakarri ninduten.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Ingeniaritza munduko zein fabrikazio prozesuen inguruko gauza asko ikasi ditut, eta hauek gure ingurunean duten inpaktua nola neurtu ere ikasten ari gara. Gradu honek edozein enpresatan lanean aurki ditzakezun arlo guztiak jorratzen ditu: fabrikazio prozesu industrialak, materialak, automatizazioa, elektronika, elektrizitatea ... eta etorkizunari begira hainbesteko garrantzia duen jasagarritasuna ere kontuan hartzen du.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia ezberdina da. Azterketez gain, ikasgai ezberdinetan ikasitako kontzeptuak praktika ezberdinen bitartez aplikatzen ditugu, eta

seihileko bakoitzaren amaieran taldekako proiektu bat egiten dugu. Egindako proiektuen artean banbuzko bizikleta eta kartoizko nukleoa duen surf taula dira gehien gustatu zaizkidanak.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gogoko dudana ikasle eta irakasleen arteko gertutasuna da. Gainera, campus honetan nahiko klase txikiak direnez, sortzen den harremana oso ona da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Master Industriala nire ikasketentzako jarraipen proposa dela iruditzen zait. Hala ere, oraindik ez dut ezer guztiz argi. Ondorengo pausua hurrengo urtean gradu-amaierako proiektua izango da.

www.mondragon.edu/prest



Pío Baroja kalearen ikuspegia. Hainbat taberna itxita daudela ikus daiteke. AIURRI

"Lanera bueltatzeko eta gure bezeroen berri jakiteko desiatzen gaude"

MIKEL, ENKO ETA EXTEBI LANBROA-ANAIK TABERNETAKO ARDURADUNAK
Koronabirusak eragindako krisia ostalariek nozituko dute, bere gordintasun osoan. Negozioa berriro irekitzeko aukera gertu dago, baina oraingoz murrizketa handiekin

Mikel Arberas ANDOAIN
Koronabirusaren krisia nola eragiten ari da tabernetan?

Eragin izugarria izaten ari da, egun batetik bestera pertsiana jaitsi behar izan genuen inongo aurreikuspenik gabe. Bat-batean diru sarrerarik gabe geratu gi-

nen eta gastu askori aurre egin behar izan diegu. Horrek egoera oso larrian utzi gaitu; alde batetik, behartutako ERTE batera bideratu gaitu. Beste aldeetik, hirurok autonomoak garenez CATA bezala ezaguna den jar-duera etenaldian gaude.

Etorkizunari begira, ze aurreikuspen dituzue?

Zaila da aurreikuspen zehatz bat egitea, informazioa egunetik egunera aldatzen baita. Argi dagoena da, azkenetarikoak izango garela egunerokotasunera bueltatzen. Normaltasun

egoera batean guztia nola kudeatuko dugun jakitea ez da erraza; gaurkoz ez dakigu zehatz mehatz zein nolako baldintzak jarriko dizkiguten, baina besterik ezean moldatu egin beharko dugu egoera berri horretara.

Andoaingo tabernen egoera nola ikusten duzue? Beste tabernariren batekin kontaktuan jarri zarete?

Koronabirusa iritsi aurretik ostalaritzaren egoera ez zen batere ona, zailtasun handiekin aurrera egiten genuen. Egoera berri honek, zailtasun horiek areagotu ditu eta sektorearen biziraupena kolokan jarri du. Egongo dira tabernak aurre egin ezin izango dutenak, eta gainontzekoen etorkizuna airean geratuko da. Beste tabernari batzuekin, egoera honi aurre egiteko informazioa alderatu dugu eta babes eta animoak eman dizkiogu elkarri.

Zerbait badakizue noiz irekitzeko aukera izango duzuen?

Ez. Lehenago aipatu dugun moduan informazioa egunez egun doa, beraz, zaila da noiz irekitzeko aukera izango dugun jakitea. Ezjakintasun egoera batean bizi gara. Lanera bueltatzeko eta gure bezeroen berri jakiteko desiatzen gaude. Faltan botatzen ditugu.

Planen bat buruan duzu hau dena bukatzean? Ostalaritza gune eta tabernaren susperraldirako?

Tabernari jarriko dizkioten baldintzetara egokitu, beharrezkoak diren osasun neurriak hartu, eta lanari ilusioz ekin egoera honi buelta emateko. Ez dugu uste aurten planik egiteko aukera izango dugunik ezjakintasun honen aurrean; koronabirusa guztiz pasa arte ahal dugun moduan lan egitea baino ez zaigu geratzen.

Laguntzaren bat espero al duzue Espainiako gobernutik, Udaletik edo Eusko Jaurlaritzatik?

Gaur egun jasotzen ari garen laguntza bakarra autonomen oinarritzko prestazioa da. Besterik ez.

Andoaingo Udalak adierazi zuen ostalaritza eta komertzioei laguntza bat emango ziela.

Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bitartez laguntza txiki bat ateratu zuen, baino ez dakigu jasoko dugun edo ez.

Momentuz laguntzaren bat jasotzea espero dugu eta behar ditugu, baino ez dakigu emango dizkiguten.

Joxerra Bengoetxea, Aker taberna

"Koronabirusak oso gogor eragin digu ostalariei. Egun batetik bestera, geure tabernako ateak itxi ditugu, eta diru sarrerarik gabe geratu gara. Era berean, gastuei aurre egiten jarraitu behar izan dugu; argindarra, zergak eta beste zenbait gastu.

Geure sektorearentzat galerak oso larriak dira, baina egia da une hauetan garrantzitsuen guztion osasuna dela, horregatik neurri egokiak hartu ziren.

Egia esan, etorkizuna oso iluna ikusten dut, egoera luzera doalako eta diru sarrerarik gabe jarraitu beharko dugulako. Espero dugu hemendik gutxira geure negozioak irekitzeko aukera edukitzea; baina ez dut argi ikusten zein baldintzatan ireki behar izango ditugun ateak, kontuan izanik, aforoa, terraza eta beste zenbait gauza.

Buelta nolakoa izango denaren ziurgabetasunarekin gaude. Baina argi dugu, dena ezberdina izango dela, eta egoera berrira egokitu beharko garela formula berriak asmatuz. Ez dakit nola egingo dugun.

Bestalde, badirudi diru-laguntzak martxan jarri dituztela, bai Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak, baina oraindik ez daude zehaztuta eta ez dakigu nahikoak izango diren. Hala ere, konfiantza izan behar dugu lagunduko gaituztela.

Azkenik, Andoaingo ostalari eta komertzioari animo eta indar mezua bidali nahi diet. Guztion artean aurrera ekingo diogulako egoera honi, eta inoiz baino indartsuago bueltatuko garelako. Eutsi gogor!"

"Tokikoaz kontzientzia hartzeko garaia da"

JONE ETXEBERRIA XIXORI BELARDENDAK

Merkatariek gizarte bizitzan duten garrantziaz ohartarazi nahi du. Eta, bestalde, kontsumo ereduaz kontzientzia hartzeko garaia dela uste du

Erredakzioa ANDOAIN

Gizarte bizitza erabat aldatu den garai honetan, nola bizi duzue egoera ez ohiko hau?

Kezkaz eta erantzunkizunaz. Alde batetik, kutsatzea izateko edo kutsatzeko beldurrez. Eta gero salmenta moduak egoera honetara egokituz, distantziak eta garbitasuna mantenduz... Gure bezeroei ahalik eta zerbitzu txukunena ematen saiatzen ari gara. Ateratzeko zailtasunak dituzten bezeroei ahal den neurrian erosketa etxera eramanez eta abar.

Maila pertsonalean moldatzen naiz, zorionez nire senarra etxean dagoelako. Lankideek, ordea, moldatzeko zailtasunak dituzte eta egoera honen aurrean ere aldaketa batzuk ekarri dizkigu. Aldaketara moldatzen eta egokitzen ari gara.

Bertan kontsumitzea ekar dezake konfinamenduak?

Bezero gehiago izaten ari gara, bai. Jendea etxean dagoenez eta mugimendua murriztua dutenez, kanpora ateratzeko zailtasun gehiago daude. Bertako komertzioetan erosten dute, eta bide batez, merkatalgune handien eragina zenbatekoa den utzi du agerian. Herrian gehiago erosten duten eta nabarmena da.

Zer da bezeroen artean entzuten duzuna?

Biak, kezka eta beldurra. Birus honek norberari edo bere inguruan zein ondorioengatik. Beste batzuk, berriz, hemendik aurrera sortuko dituen ondorioekin kezkatuta daude. Enpresak itxita, dendak itxita... Beste batzuen kezka haurrak horrenbeste denbora etxean edukitzea da.

Eta ekoizleen artean? Zuek ekologikoa eta bertako barazkiak lantzen dituzten ekoizle askorekin lan egiten duzue. Zer da euren aldetik nabaritzen duzuen?

Gure dendara etortzen diren ekoizle txikiak. Guk bezero



Jone Etxeberria, Xixori dendetako arduraduna da. AIURRI

gehiago ditugu, gehiago saltzen dugu eta orduan, beraiek ere salmenta areagotu egin dute. Denda txikietan salmentak areagotu egin dira. Jendea etxean dagoenez, erosketa gehiago egin da.

Ostalaritzara zuzendutako salmenta askoz okerrago ibiliko da, guztia itxita baitago. Guregana etortzen diren ekoizleen egoera hobea da.

Merkataritzarentzat hau oso txarra izango da, nahiz eta zuetako batzuk irekita eduki. Zein hausnarketa eragiten dizu horrek?

Etorkizuna beltza da, lehen egoera erraza ez bazen saltoki handien eraginagatik, online erosketen eraginagatik eta abar. Orain okerragoa da. Horrenbeste denbora denda txikiak itxita, diru sarrerarik gabe, eta gastuak berdin mantenduz. Kosta egingo da martxa berriro hartzea, eta orduan egoera zailagoa izango da. Kezka handia ere ostalaritzarekin.

Irtenbiderik, soluziobiderik ez dago. Egoera honen aurrean pertsona modura zein hausnarketa egin behako genuke?

Esan beharko dut, azken finean gure etorkizuna erosleen eskue-

tan dagoela. Nire ustez, erreflexio orokorra eskatzen du guzti honek; kontsumo eredu, gizarite eredu, zer kontsumo eredu nahi dugun. Erreflexio bat, norberak egin behar duena eta instituzioek egin behar dutena. Alde batetik dugu, saltoki handietan kontsumoa biltzeak dakarren guztia; aberastasuna esku gutxitan pilatzen da, gehiengo produktua kanpoko delatzen, eta sektore horietako langileen explotazioa hortxe dago.

Bestalde, herri bizitza ere gutxitu egiten da, desagertu egin daiteke.

Bertatik bertara kontsumitzen hasteko kontzientziatuko bagina, aberastasuna hobeto banatuko litzake. Bertako baserritarrei indarra emanez, baserritarren kontsumoa areagotu egingo litzake. Baita arrantza ere. Guzti horrek erreflexioa eskatzen du, eta pixkanaka kontzientzia hartzen hasi beharko genuke.

Azkenik, animoak eman nahiko nizkieke dendari txiki guztiei, ostalari guztiei, bertako baserritar guztiei eta etxean geratzen ari diren guztiei ere. Hau guztia gaitzizko dugu. Aurrera, eta animo!



Aliprox dendako kideak, Ondarreta kalean urtarrean ateratako argazkian. AIURRI

"Egun batzuetan salmenta kopurua hirukoiztu dugu"

Ondarreta kalean dago Ondarreta Aliprox supermerkatua. Arduradunak lan eta lan ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Zer moduz daramatzazue egoera, hain ez ohikoa dena? Ondo antolatzen ari zarete lana eta zuen bizimodua uztartzen? Asko aldatu zaizue bizitza?

Guztia aldatu da. Ondo antolatzen ari gara, baina bizitza apur bat aldatu zaigu, egun guztia lanean pasatzen baitugu; bestela ezingo genuke komertzioa aurrera eramanez.

Langile bat kontratupean hartu behar izan dugu, lan asko dugulako. Eskaerei dagokionez, berriz, ahal den moduan ondo moldatzen ari gara.

Krisiaren hasieratik bezero gehiago izan dituzue? Izan ere, bertan kontsumitzea ekar dezake konfinamenduak. Bezero berriak bere-nagatu dituzue?

Bezero gehiago ditugu. Alarma egoeragatik gertuko dendetan erosketak egitea behartzen zenez, eta beste lekuetara joateko aukerarik ez zegoenez, salmenten igoera egon da. Egun batzuetan salmenta kopurua hirukoiztu ere egin dugu.

Zer da bezeroen artean entzuten duzuna? Kezka, beldurra...

Kexa asko entzuten da. Erosketetarako gurdia beteta dute-nean ere, dendan produktu nahikoa ez dagoela kezka aritzen dira.

Biltegi guztiak edo gehienak egoera antzerakoan daude. Batzuetan ez dugu genero nahikoa jasotzen ohiko egoerarekin alderatuz. Guzti hau pasa ez balitz eta jendeak behar baino kantitate gehiago erosiko ez balu,

guztientzako produktu nahikoa edukiko genuke.

Eta ekoizleen artean? Zuek ekoizle ezberdinekin lan egiten duzue. Zer da euren aldetik nabaritzen duzuen?

Kasu askotan hornitzaileak izan direla salbatu gaituztenak dendan produktu gabe geratzetik. Ekoizleei esker hornitzeko aukera eduki dugu, hori bai leku batetik bestera mugitu behar izan gara. Jendeak eskertzen du modu batera edo bestera produktu ezberdinak eskuratzeko aukera edukitzea.

Merkataritzarentzat hau oso txarra izango da, nahiz eta zuetako batzuk irekita eduki. Zein hausnarketa eragiten dizue horrek?

Hausnarketa pertsonal gisa, gure seme-alabekin egoteko aukera izan dugula esan dezakegu. Horrez gain, komertzioa irekita mantentzeko zortea eduki dugu; guretzako denda itxita edukitzea hondamendia izango litzateke, negozioan duela gutxi hasi ginelako, baina zortea eduki dugu. **Irtenbiderik ez dago epe motzera. Egoera honen aurrean pertsona modura zein hausnarketa egin behako genuke?**

Normaltasunera itzuliko gara eta hau guztia ahaztuko zaigu, seguru gaude.

"NORMALTASUNERA ITZULIKO GARA ETA HAU GUZTIA AHAZTUKO ZAIGU, SEGURU DAUDE"



Goizean goizetik urnietar eta andoaindar ugari hurbildu zen Eteneta aldera, larunbat goizean. **AIURRI**



Aizkorriko menditik irudi ikusgarriak helarazi zizkigun herrikide batek. **AIURRI**



Li eta Mesta Nordic Walking kirol jardueran hasteko prest ziren. **AIURRI**



Bezperan mapak aztertu eta Andoaingo mugaraino joateko asmoa zuen. **AIURRI**




Onddo aldera joanda, 20 kilometroko ibilbidea egiteko prest zeuden. **AIURRI**

Kaiolatik ihes egingo balute bezala, goizean goizetik mendira

Maiatzaren 2a argitzen ari zela, kirolariak gustuko jarduera egitera irten ziren. Eguna noiz iritsiko zain ziren. Goizeko 07:30ean, esaterako, korrikalari eta txirrindulari ugari kalez kale ikus zitezkeen. Haien adierazpenak Aiurri.eus gunean bilduta daude



Korrika, bizikleta gainean, oinez... jarduera fisikoa eta kirola egiteko toki ederra da Leitzaran. Asteburuan, eguraldia lagun, dozenaka herrikide ibili zen. **AIURRI**



NIRE USTEZ

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Manipulatzen

Igande goiza. Manipulatzen hastera noa. Nahiago nuen mendira bueltatxo bat eman, baina gihar-min latza dut gerrian eta izterretan. Ia bi hilabete zerrigintzan aritu izanaren zehar kalteak. Oraino konturatu ez banaiz ere, aspaldi hasi nintzen manipulatzen, eta goiza pasatzeko aukera ona iruditu zait. Kazetari eta argazkilariok manipulatzen egiten baitugu nahita. Ez al zenekiten? Ba badakizue. Botere hori eman zaigu letrak juntatzen trebezia apur bat dugunoi, argazki kamerako botoiari klik egiten ikasi zuenari.

Testu hau manipulazio hutsa da. Zuek, irakurle maiteok, nik nahi dudana pentsa dezazuen idatzitakoa. Kazetari eta argazkilariok, bizkorrak gu, botere bereziak ditugu zuek guztiok guk nahi duguna pentsa dezazuen. Arlote eta ez jakin hutsak zaretela ziur gaude, ez zaretela gai zuen kabuz zuen iritzi eta pentsaerak edukitzeko, eta horregatik manipulatzena dedikatzen gara.

Adibide simple bat. EFE agentziako Juan Herrero argazkilariak Zurriolako argazki bat egin zuen teleobjektiboarekin, duela bi aste. Kilometro pasako tartea ikusten zen erretratuan, baina argazkiaren efektuari esker, tarte txikian dozenaka lagun zeudela zirudien. Hori festa sare sozialetan: Montaje bat da, argazkia benetakoa ez, photoshop bitartez moldatua. Argazkilariak jendea engainatu nahi zuen... Juan Herrero urkamendian zintzilikatzera zigortu zuten askok. Aurreiritziz betetako gizartea baikara.

Argazkilari profesionalek esan zuten argazkia benetakoa zela. Eta azalpenak eman. Alperrik! Jendeak ja erabakia hartua zeukan. “Montaje bat da!”. Argazki gehiago egin ziren, eta Zurriolako pasealekuko efektu berarekin: Bartzelonan, jendea pasean, edota politikarientzat, mahai bueltan. Lehen



ANDONI URBISTONDO

planoan Denis Itxaso, eta urrun, oso urrun, Urkullu Lehendakaria. Nahi berezirik ba al zen argazki horretan? Inork ez zuen ezer esan. Urtero, urtarrilean Bilbon presoen Euskal Herriratzea eskatzeko egiten den manifestazio erraldoian ere teleobjektiboak erabiltzen dituzte argazkilariak. Argazkilari batek galdetu zuen sarean, aho bizarrik gabe: “Orduan ere montaje bat dela salatuko al dugu?”. Kri-kri, kri-kri...

Efektu optikoak dira. Inguruan dugun errealtatearekin bat egiten ez duten pertzepzio bisualak. Kito. Kazetari eta argazkilariok nahi duguna manipulatzen gaitasuna dugun pertzepzioa bezala. Ez baita egia. Kazetari eta argazkilariok nahi duguna esateko, espresatzeko askatasuna dugu, baina ez gara jendeak ateratzen dituen ondorioen erantzule. Ezta gutxiago ere.

Larunbat goizean dozenaka lagun Buruntzan. Gehienak gurutzeraino, alegia, Andoaingo lurretaraino. “50 metroetatik ez da ezer pasatzen...”. Manipulatzen. Adarramendin ere Andoaingo jende asko. Bizilaguna

andoaingarra da, eta susmoa baneukan ere, zalantzak argitu dizkit: Adarramendi Andoaingo mendia dela uste du: “Bueno, gailurra ez, baina Leitzarar aldeko magal guztia bai”. Sentitzen dut, andoaingar bizilagun maiteak, baina Adarramendi guztiona izateaz gain, Urnietan dago. Hemen ere manipulazioa ardatz.

Larunbat gauean “I, Daniel Blake” pelikula ikusi nuen telebistan (“Ni, Daniel Blake”). Zuzendaria Ken Loach zelako hautatu nuen. Bihotzekoa eman, bajaran sosik kobratu gabe egon, eta langabezia saria eskatzen duen hiritar baten gorabeherak kontatzen ditu. Langabezia bulegoetan eta bertako funtzionarioek bere egoera nola katramilatzen duten, diru laguntzarik jaso ez dezan. Medikuek epaitegiaren ez gaitasun epaia jasotzeko dela, bigarren bihotzekoa jasaten du, eta hil egiten da Blake. Ni ere konbentzitu ninduen Daniel Blake-ek. Kabroi galantak langabezi bulegoetako langileak, eta Gobernuko arduradunak.

Baina ez ninduen Ken Loach-ek manipulatu, nik neuk nire burua baizik. Iraun!

Kalera irteteko ordutegiak

Konfinamendua arindu dutenetik, kalera ateratzeko ordutegia adinaren eta ordutegiaren arabera sailkatu dute.

06:00-10:00 | Kirola

- Adina: 14-70 urte.
- Egunean behin.
- Banaka, edozein jarduera.
- Udalerri barruan.

06:00-10:00 | Paseoa

- Adina: 14-70 urte.
- Egunean behin.
- Jarduera: Bizikideren batekin irteteko aukera.
- Ibilbidea: Etxetik KM 1era, gehienez.

10:00-12:00 | Adinekoak

- Adina: 70 urtetik gorakoak, eta laguntza behar dutenak.
- Egunean behin.
- Jarduera: Bizikideren batekin irteteko aukera.
- Ibilbidea: Etxetik KM 1era, gehienez.

12:00-19:00 | Haurrak

- Adina: 0-13 urte.
- Egunean ordubetez kalean.
- Laguntza: Heldu baten ardurapean.
- Ibilbidea: Etxetik KM 1era, gehienez.
- Distantzia soziala: Bi metrokoa.
- Higieena: Eskuak ondo garbitu irten baino lehen eta ondoren.

19:00-20:00 | Paseoa

- Adina: 70 urtetik gorakoak, eta laguntza behar dutenak.
- Egunean behin.
- Jarduera: Bizikideren batekin irteteko aukera.
- Ibilbidea: Etxetik KM 1era, gehienez.

20:00-23:00 | Kirola

- Adina: 14-70 urte.
- Egunean behin.
- Banaka, edozein jarduera.
- Udalerri barruan.

20:00-23:00 | Paseoa

- Adina: 14-70 urte.
- Egunean behin.
- Jarduera: Bizikideren batekin irteteko aukera.
- Ibilbidea: Etxetik KM 1era, gehienez.





Juanito Albizu bidaia gogoangarria albiste bilakatu zeneko albistearekin. Ondo gordeta dauka, koadroan sartuta. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

26 urte atzera Urnieta xelebrekeri arraroenen mapan jarri zuten bidaia egin zuten Juanito Albizuk eta Juan Antonio Barea urnietarrek: herritik Moskuko Plaza Gorrira taxian. 9.000 kilometro, 10 egunetan. Ordain-saria, garaiko 700.000 pezeta! Guinness errekorren zerrendan agertzeko moduko pasadizoa. Juanito taxilaria erretiratu da, dagoeneko, eta Barea ere zendu zen, aspaldi. Gidariak ondo gogoratzen ditu bidai hartako pasarte harrigarriak: bere bezeroaren kapritxoak, Moskuko polizia-etxea, erregeaiez nahastu zen eguna, herriko jendeak gezurtizat hartzea... Orduan pentsaezina zen Moskura taxian joatea. Egun zer esanik ez. Baina Juanito eta Juan Antonio joan ziren. Eta itzuli. Bidai haren berri ematen segitzeko.

Herri guztiek dituzte pasadizo bereziak, ez sinesteko modukoak. Protagonistak erotzat jotzeko moduko xelebrekeria franko. Urnietak ere bai, noski. Entzutsuena, edo komunikabideetan oihartzun handiena lortu zuena da 1994an Juanito Albizu taxi gidariak eta Juan Antonio Barea

Xelebreetan xelebreena

1994an Juanito Albizuk Juan Antonio Bareak eskatutako bidaia egin zuen: Moskuko Plaza Gorrira, taxian. 10 egunetan egin zuten bidaia, 9.000 kilometro denera; garaiko 700.000 pezeta ordaindu zituen Bareak

urnietarrak egin zuten erokeria: Moskuko Plaza Gorrira taxian joan (Errusia). Bai, mende laurden atzera hegazkinak bazeuden Moskura joateko. Bidaia eroso zen, egun bakarrean iristen zen Euskal Herritik Errusiako hiriburura. Baina beste egoera askotan bezala, bezeroak agintzen du.

“Juan Antonio Barea Luis Mari Eguskizarekin ibiltzen zen taxian hara eta hona”, dio Juanito Albizuk. Egunero Juanito tabernara joaten zen bazkaltzera (Juanitoren Miren emaztea zen zer-

bitzaria). “Bat-batean nirekin hasi zen taxian ibiltzen, eta egun batean Calatayud-era bazkaltzera joan behar genuela esan zidan (Zaragoza), han Euskal Herrian lan egin zuen sarjentu lagun bat zuela, eta bisita egin behar ziola”. Monasterio de la Piedra-ra joan ziren bisitan, eta autoa janari eta edariz ondo beteta joan ziren: “Bakailaoa, Setieneko sagardo botila kutxa pare bat hartu eta hara joan ginen”.

Calatayud, taxia, dirutza... Galderak taxi gidariarentzat: “Bareak dirua zeukala zalantza-

rik ez, taxian mugitzen baitzen beti. Nahiko gizon berezia zen, ezaguna. Donostian burdindegi antzeko bat eduki zuen, eta herri guztiak ezagutzen zuen. Aldapeta aldapa hasieran bizi zen, astoen aldapa, zaharrak gare-nontzat. Irratia beti topera edukitzen zuen, xelebrea zen benetan”. Calatayud-eko txangoaren ostean hasi zen Plaza Gorriaz mintzatzen Barea. “Ez dakit komunismoaren kontrakoa ote zen edo, baina bat-batean bota zidan: ‘Aurten Moskuko Plaza Gorrira joango gara’. Nik nire-

tzat pentsatu nuen: ‘hau erotu duk’. Juanitok Mosku ez zuela ezagutzen esan zion, zer erakutsi ez zekiela: “Baina hark buruan sartuta zeukan dagoeneko ‘nik Plaza Gorria bakarrik ikusi nahi dut’, eta ez zuen etsi. Nonbait, ezkondu zenean, emazteari eztei bidaia Moskura egingo zutela agindu zion, baina ez zuen haraino taxian nork eraman bilatu”, dio Juanitok.

Mapak, bisak, Moskuko informazioa...

Juanito kamioi gidaria izan zen taxiarekin hasi aurretik. Errepidean ibiltzea gustukoa zuen. “Nik neuk gogoa banuen, Errusiara joateko. Alemanian egona nintzen, Herbehereetan ere bai. Baina jakina, ezin nuen dirua galduz joan”. Galdezka hasi zen, han eta hemen. “Poloniako jendea bazen Urnietan, eta haiei galdezka hasi nintzen: ‘Ezta okurritu ere hara joatea, kotxea lapurtuko dizute! Poliziaz mo-zorrotzen diren pertsonak dau-de, dirua eskatzeko’, esan zidaten”. Bere kabuz informazioa biltzen hasi zen, San Jose kamioi enpresan. Haiek ere poloniarren ohar bera eman zioten: “Ez zaitetz joan!”, esan zidaten”. Mapak begiratzen hasi zen Juanito: “4.500 kilometro joan, eta beste hainbeste buelta. Egunak, ostatuak, erregeaia, bisa... kalkuluak egin nituen”. Bidai agentzia batean ere galdetu zuen, “ea bidaia osoak ze kostu zeukan. Alegia, hegazkina, ostatua, gidaria gurekin Plaza Gorria ikusteko... 270.000 pezeta, esan zidaten”. Duela 25 urteko 270.000 pezeta! Kontsulatura ere joan zen, bakunen inguruan galde-tzera.

Salneurri hori aintzat hartuta, Juanitok Bareari 700.000 pezeta eskatzea pentsatu zuen: “Bezeroa beldurtzeko. Orduan dirutza handia zen kopuru hori, eta Bareak atzera egingo zuela sinetsita nengoen”. Baina baiezkkoa eman zion. “Barea behien modukoa zen. Bera, joatekotan, oinez. Hori bai, norbaitekin joan nahi zuen, bakarrik ez baitzen ausartzen”. Baiezkorekin, xehetasun guztiak lotzen hasi zen gidaria. Kotxearen aseguruekin arazo asko izan zituen. “Poloniara arte egiten zidaten aseguruia, baina handik Errusiara inork ez. Orduan bertara joatea pentsaezina zen, inork ez zuen pentsatu ere egiten. Bizitza ase-

guruia ere egin nuen ezkutuan bientzat, zerbait gertatzen bazen. Nik hiru alaba txiki nituen! 10.000 pezeta ordaindu nituen, eta ez nion ezer esan Bareari". 1994 urteko 700.000 pezeta zenbat diru izango litzateke egun? Juanitoren erantzuna: "Ba bi milioi pezeta izango ziren, igual". Bi milioi pezeta edukitze hutsa ere zaila izango zen orduan.

Juanitok euskara eta gaztelania hitz egiten ditu. Frantsesa arrastorik ez, ingelesa ere ez. Poloniera edo errusiera, arrotzak erabat. Nola moldatu ote zen hizkuntzekin? "Keinuekin. Tourrera ere urte batzuetan joanak ginen, eta oilaskoa eskatzen eskatu genuen besoak mugituz. Moskura bidean ere antzera. Hori eta dirua erakutsiz. Nik Alemaniako markoak eman nituen, hemen errubloak lortzea zaila zelako". Mapak-eta ba omen zeuden garai hartan. Hori bai, autopista gutxiagorekin. "Orain gozo joaten zara Parisera autopistatik, baina 1994an Tours arte errepide nazionaletik joan behar zinen (Paristik 250 kilometrorara dago Tours). Pentsa ze martxa, herri guztiak zeharkatzen".

10 egun, 9.000 kilometro

Abiatu aurretik Xabier Lete zenak esandakoa izan zuen gogoan Juanitok: "Autoan galtzak, txokolatea eta patxarana eramateko esan zidan, arazoak banituen, eta bertakoei zerbait galdetu behar ba nien, gauza horiek eskaintzeko". Errusiako Kontsulatuan Maria izeneko emakume baten kontaktua eman zioten. "Miren emaztearen senidea zen, Moskun zegoena lanean. Asko lagundu zigun Moskun bertan. Minsk-etik, Bielorrusiako hiri-burutik deitu genion, hurrengo egunean iritsiko ginela esateko, eta han itxaron zigun".

Abiatu ziren. Peugeot 405 berri batean. Lau egunetan iritsi ziren Moskura, Lehenengo egunean Frantziako Peronne herri-arte, Belgikako mugatik gertu. "Kamioilariak non lo egin esan zidaten, non zeuden atsedena hartzeko gune aproposak, eta haietan geratzen ginen". Haietako batean zaletu omen zen alkoholik gabeko garagardoa edaten, "alkohola zuen garagardorik ezin nuelako edan". Bigarren egunean goizeko zazpitan irten ziren, Alemania osoa gurutzatu eta Polonian sartu. "Banuen gaua pasatzeko erreferen-



Moskuko bidaietako ordainagiritako bat. AIURRI

tzi toki bat, baina ezin bilatu". Irrati antzeko bat bazuen Juanitok, eta galdetu egin zuen, "ea kamioi gidariren batek zer edo zer erantzuten zuen. Bilatu genuen, eta logelara nindoanean, Bareak kotxean geratu behar zuela esan zidan, ez zela handik mugituko. Ez nintzen konbentzitzen saiatu, berezi samarra zen izaeraz, eta autoan pasa zuen gaua!". Hori bai, zaindari bati autoa eta Barea zaintzeko eskatu zion, garaiko bost markoren truke.

Goizean jaiki, gosaldut, kontua eskatu eta 28.000 zentralia erakusten zuen faktura erakutsi zion langileak (28.000 zloty, orduan Poloniako moneta zena). "Ia atzeraka erori nintzen, sustoarekin, baina gero zenbat marko ziren esan eta lasaitu nintzen". Azkar joan ziren, "sari 160 kilometro orduko abiaduran. Errepideak oso zabalak zeuden, baina kontuz ibili behar zen, zulo handiak baitzeuden asfaltoan". Minsk-en hirugarren gaua pasa eta laugarren egune-ko eguerdirako Moskuko Plaza Gorrian zeuden.

Bielorrusia eta Errusiako mugan izandako pasadizoa gogoratu du Juanitok: "Lau polizia etorri zitzaizkidan, txikiena bi metrokoa, eta kotxea husteko agindu. Patxarana neraman, ardo zahagi bat... Jakin ere ez zuten jakingo zer zen zahagia.

"ABIATU ZIREN. PEUGEOT 405 BERRI BATEAN. LAU EGUNETAN IRITSI ZIREN MOSKURA"

Halako bulego batean sartu ninduten, eta ni dirua eskatuko zidatela konbentzitu nengoen. Halaxe izan zen, baina ez zen soborno saiakera izan. Bisa eskatzerakoan zehaztu nuen eguna baino bi egun lehenago iritsi ginen Bielorrusia eta Errusia arteko mugara, eta isun moduan 100 marko alemaniar eskatu zizkidan, pertsona bakoitzagatik. 100 nik, 100 Bareak. 50 marko ordainduta lortu genuen adostasuna".

Mosku, mundu ezezaguna

Eta Moskun, komeria gehiago. Krokis bat ba zuen Juanitok, hotelaren izenarekin. Moskuko etorbide batean geratu zen, norbaiti galdetzeko asmotan, eta polizia auto bat geratu zen. "Haiei jarraitzeko esan zidaten, pentsatuz hotelera eramango nindutela. Polizia-etxera eramane ninduten! Han, jakina, ez nuen tutik ere ulertzen. Halako batean telefonoa eskatzen ari nintzela ulertu zidaten, eta Mariari, emaztearen senide zenari deitu nion. Hura etorri eta dena konpondu zen. Metro geltoki batera hurbiltzeko esan zidan, eta han azalduko zela. Hala izan zen". Autoa enbaxadan utzi eta afaltzera joan ziren, eta ondoren hotelera joan ziren.

Moskuko metroa ikaragarri gustatu zitzaion Juanitori. Plaza Gorria ere bai: "Ikaragarria.

"HERRIAN JENDEAK EZ ZUEN SINESTEN MOSKURA TAXIAN JOAN ZIRENIK"



Bidaian zehar erabilitako dirua. AIURRI

Lenin-en Mausoleoa, helikopteroak non lur hartu zuen, hango dendak... Barea ere harrituta geratu zen militar kopuruarekin, Plaza Gorri azpian dagoen patio handi batekin. Dena da handia, eta Mosku oso aberatsa, baina kanpotik. Autobusak, aldiz, oso pobreak. Gu egon ginen urtean miseria asko ikusten zen. Bertakoak nekagarri samarrak ziren, dirua eskatzen ziguten etengabe". Atzeritarrentzat hiri garestia omen zen bazkal-tzea. "Urnietan 500 bat pezeta balio zuen eguneko menuak, baina guk atzerriko produktuak eskatzen genituenez, diru asko ordaindu genuen". Berezi-ki go-goan dut cognac pare bat edan zuten eguna: "3.000 pezeta inguru ordaindu genuen, bakoitzak". Moskun bi egun eta erdi egin zituzten, baina denbora gehiena hotelean, "Bareak ez zuelako atera nahi".

Joan hiru egun eta erdian egin bazuten, buelta azkarrago: "Bi egun eta erdi". Polonia aldean erregeiaren arazoak izan zituen Juanitok. "Gasolinariak gabe gelditzen ari nintzen, eta gasolindegirik bilatu ez. Bat bilatu nuen, ordaindu, eta bota nizekion litro batzuk... 20 kilometro egin eta kotxea ploff, gelditu egin zen. Erregaez nahastu nintzen, noski... Gau bete zen, eta 'ze kristo egin behar dut nik orain', pentsatu nuen niretzat. Kamioi-

"TELEBISTAN ETA IRRATIAN ERE AGERTU ZEN BIDAIA, LEVANDO ANCLAS BIDAIA SAIOAN"

lari bat geratu zen, eta egunkari orri batekin inbutu antzeko bat egin, eta bete genuen depositua pixka bat, hurrengo gasolindegira arte". Miren emazteak susmoa du, gasolindegian ez ote zioten ura bota, erregaia bota beharrean.

Herrian txantxak jasan behar

Herrian jendeak ez zuen sinesten Moskura taxian joan zirenik. "El Diario Vascok bidaiako kronika atera zuenean onartu zuten, lehenago ez, pertsona batek izan ezik. Daniel Txinpartak egunkarian ikusi zuenean ere ez zuen sinesten". Telebis-tan eta irratan ere agertu zen bidaia, Roge Blascoren *Levando Anclas* bidaia saio famatuan, Radio Euskadin. Record Guinness lehiaketara aurkeztea proposatu zioten gidariari, baina taberna zuloko momentuko harropuzkerian geratu zen solasaldi hura. Etxera bueltatuta, bazkaldu egin zuen bapo Juanitok: "Bidean gaizki jan genuen, ez baitzegoen ogirik. Txatka kontserbak, ia menu bakar. Urnietara iritsi eta txuleta handi bat jan nuen. Bareak ardo gorri botila osoa edan zuen, eta mozkortuta eramane nuen etxera. Biharamunean anbulantzia batean erietxera igo zutela oroitzen naiz".

Sakelakorik gabe, etxera deit-zeko komeriak izan zituen gidariak. Miren emazteak beldur handia pasa omen zuen senarra etxera bueltatu zain. Juanitok taxi gidari jarraitu zuen urte luzez, baina inoiz ez zen Moskuko Plaza Gorriraino eramane zuen adinako beste abentura batean murgildu.

Odol-emaileen hitzordu berria Urnietan, hilaren 11n

Ohiko odol-emaileei etxera deituko diete, alde aurreko hitzordua hartzea ezinbestekoa baita

Erredakzioa URNIETA

Koronabirusaren eraginez, odol-erate zerbitzuaren kokapena aldatzen ari dira. Andoainen, esaterako, Anbulatorioik Arratera pasa zuten. Urnietan Lekaion egingo dute, datorren maiatzaren 11ko saioa.

Ohiko odol emaileei, zuzenean deituko diete Odol Emaileen elkartetik, eta dei horretan adieraziko diete, txanda hartzeko zein egunetan eta zein zenbakitara deitu beharko duten.

Prebentzio eta segurtasun neurriak hartuko dira. Azken asteetan odol-emaileen jokabidea bikaina izaten ari da, ez baitira etxean geratu eta asko eta asko izan dira odola ematera hurbildu direnak.

Urnietan odola eman gabe geratzen denari oharra. Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Donostiako Manuel Lekuona kalean daukan egoitzan odola emateko aukera dauka.



Ramos (Salkin), Lainez alkatea, Izagirre alkate-ordea eta Vedasco (PSE-EE). AIURRI

Diru-laguntza lerroa ostalariei, merkatariei eta autonomoei

Andoaingo Udalak 600.000 euroko partida zabalduko du, Koronabirusak sortutako kalteei aurre egiteko

Erredakzioa ANDOAIN

Merkataritzari, ostalaritzari eta langile autonomoei bideratuko zaizkie diru-laguntzak, 400 eta 350 eurokoak. Diru partida irekitzearen helburua Andoaingo herritarren interes orokorra babestea izan dela adierazi zuen Maider Lainez alkateak. "Itxierak edo jarduera ekonomikoa nabarmen murrizteak eragindako autonomoei, merkataritzari, ostalaritzari eta antzekoei likidezia eman nahi zaie, behin osasun-alarma amaituta, gure ekonomia ahalik eta lasterren berpizteko".

Salkin

Andoaingo merkataria eta ostalarien elkarteko lehendakaria Maite Ramos da, Aterpe tabernako jabea. Bere ustean herriko merkataria eta ostalari gehienek bete ahal izango dituzte Udalak jarritako baldintzak: "Laguntzak ez dizkigu galerak ekidituko, baina ongi etorriak izango dira, aringarri gisa".

EH Bildu

Gobernu taldearen jokabidea kritikatu zuen, ohar bidez. Besteak beste, partida ekonomikoa ez mugatzea eskatzen zuten.



Langabetu eta familientzat aholkularitza zerbitzua

Koronabirus garaian, zerbitzu berria martxan jarri du Beterri-Buruntza garapen agentziak

Erredakzioa URNIETA

Zerbitzuaz baliatzeko galdeketa erraza bete behar da Beterriburuntza.eus webgunean. Andoaingo eta Urnietako herritarrei zuzenduriko zerbitzua da: "Helburua enplegu arloan eta diru-laguntzen inguruan dituzten kontsulta espezifikoei erantzuna ematea da". Bi kontsulta mota egin ahaliko dira:

- Enplegu orientazioa eta laguntza teknikoak: "Enpleguarekin lotura duten zalantzak (Langabezia, RGI eskaera edo berritzea, ERTEi buruzko kontsultak...) argitu eta tramite ezberdinak aurrera eramateko zailtasunak dituzten herritarrei laguntza teknikoak ematea".
- Diru-laguntza eta aholkularitza zerbitzua: "Alarma-egoeraren eraginpean dauden pertsonen eta familiei zuzendutako neurriak, laguntza ekonomikoei eta gizarte-laguntzei buruzko informazioa".




ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Jon
Jonak 7 urte bete zituen maiatzaren 4an. Zorionak eta muxu potoloak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN

Odile Igariz
Maiatzaren 7an 10 urte bete zenituen Odile. Muxu handiak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN

Natxo
Zorionak Natxo, morroskito! Oso ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Muxu potoloak etxeko partez!



ANDOAIN

Aritz Gil Garmendia
Zorionak Aritz!!! iadanik 11 urte potolo!!! jarraitu beti bezain alai. Muxu haundi bat etxeko partez!!! Maite zaitugu!



ANDOAIN

Hegoa Mariezkurrena Zubillaga
Ongi etorri HEGOAI! Etxeko egonaldia poztasunez bete diguzu! Ze ondo zaintzen zaituzten zure bi anaiak. Ikaragarri maite zaituztegu!!! Amatxo eta Aitaxo

AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA



25 €

Harpidetza egiteko sar zaitetz Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitetz harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago